

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Argi dugu gure bezeroak garrantzitsuena direla eta gure inguruan ditugun pertsonen artean zeintzuk izango diren aukeratu behar dugula. Hala ere, gure merkatuaren **segmentazioa** nahiko **zabala** da. Bezero potentzial talentudun pertsonak dira baina hauen barruan. Hau da gure sailkapena:

- **Adinaren arabera:**

- **16*-30 urte:** Musikan talentua dutenak. Mota honetako talentu bat garatzeko txikitatik praktikatu behar da. Gainera, jende gazteak, normalean, arrakasta handiagoa lor dezake.
- **16* urtetik gora:** Idazteketan eta marrazketan talentua dutenak. Talentu hauek dauzkaten edozein pertsonak arrakasta handia izateko aukera dutelako.



- **Geografikoki:**

- Momentuz, enpresa hau **Euskal Herrian soilik** aurrera eramatea erabaki dugu. Geroago arrakasta handia lortzekotan hura zabaltzeko ahalegina egingo genuke.

* 18 urtetik beherakoek, gurasoen baimena behar dute. Gainera, 16 tik gora jarri dugu hemen sartzeko erabakia pertsona berak erabaki behar duelako eta ez haren gurasoek.